

Bizkaia Aretoko Erakusketa Batzordea

Egin nahi den jarduera UPV/EHUK antolatutako erakusketa bat bada, lekua egoteak eta aretoa erreserbatzeko eskaera eginda edukitzeak ez du bermatuko erakusketa egin ahal izango denik.

Espazioak erreserbatzeko eskaera egin baino lehen egin nahi den jarduerari buruzko memoria bat bidali beharko da honako helbide honetara: bizkaia-aretoa.zuzendaria@ehu.es. Memoria horretan honako hauek jaso beharko dira:

- Erakusketa proiektuaren deskribapena eta antolatzaileen datuak biltzen dituen fitxa teknikoa
- Erakusketaren helburuak
- Zabalkunderako materialak eta ekintzak: inaugurazioa, kartelak, liburuxkak, biniloak, etab.
- Egingo diren jarduera osagarriak: hitzaldiak, tailerrak, bisita gidatuak, etab.
- Intereskoa izan daitekeen beste edozein informazio

Bizkaia Aretoko erakusketetarako aholku batzordeak –Bizkaiko Campuseko Unibertsitate Hedakuntzarako zuzendariak, Kulturgintzako zuzendariak eta eraikineko zuzendariak osatutakoak– aztertu egingo du, ahalik eta eperik laburrenean, erakusketa bideragarria den eta, iraupenari eta espazioari dagokionez, zein baldintzatan egin daitekeen.

Azterketa horretan, eraikinean egingo diren gainerako jarduerak eta eraikinak izango duen okupazioa kontuan izateaz gain, aintzat hartuko dira honako balorazio irizpide hauek:

- Erakusketa proposamenen interesa eta kalitatea
- Erakusketak eraikineko espazioetara egokitzea
- Erakusketa osatzeko jarduerak: hitzaldiak, tailerrak, bisita gidatuak, etab.
- UPV/EHUko kideen inplikazioa erakusketa proposamenetan
- Jardueraren zabalkunderako ekintzak

Sin.: **UPV/EHUko Bizkaia Aretoko Erakusketa Batzordea**